



Osakidetza


EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

Angiologia eta Kirurgia Baskularra

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila



**Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako
irakaskuntza-akreditazioa**

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



Angiologia eta Kirurgia Baskularra

Gaixotasun baskularren intzidentzia, prebalentzia eta gaixotze- eta heriotza-tasa handia kontuan izanda, argi geratu da **Angiologia eta Kirurgia Baskularreko** espezialitatea ondo bereizitako espezialitate mediko-kirurgiko bat dela, gaikuntza eta espezializazio handikoa eta paziente baskularrari tratamendu globala eskaintzen diona. Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan Kirurgia Baskularra esaten dioten espezialitatearekin pareka daiteke, Kirurgia kardiakotik edo kardiotorazikotik garbi bereizita.

Gaixotasun baskularrak prebenitzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko funtzio klasikoez gain, espezialitateak norabide-aldaketa garrantzitsua egin du teknika endobaskular berriak gehituz lehendik zeudenei, gaixotasun baskularrari tratamendu integrala ematen jarraitzeko xedearekin.

Espezialisten gaitasunak sistema arterialaren, benosoaren eta linfatikoaren patologiaren prebentzioari, diagnostiko kliniko eta instrumentalari eta tratamendu mediko-kirurgikoari lotuak izango dira, bihotza eta garezur-barneko arteriak alde batera utzita.

Jarraian zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Guruztetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Nor gara



Zerbitziburua:
Juan Luis Fonseca Legrand dk.



Egoiliarren tutorea:
Ana Apodaka Diez dk.

Zerbitzuak Atal edo Unitate bereizi bezala funtzionatzen du 1995etik eta Zerbitzu bezala 2009tik, eta Angiologia eta Kirurgia Baskularreko Batzorde Nazionalak diseinatutako espezialitate-programa osoaren prestakuntza eskaintzen du. 2007. urtetik, espezialistak prestatzeko akreditazioa du eta urtean prestakuntza-plaza bat hartzeko ahalmena.

Lehenengo urteetan, Juan Antonio García Alonso doktorea izan zen zerbitzuburu, 2009ra arte, eta ordutik Juan Luis Fonseca Legrand doktoreak du ardura hori. Zerbitzuaren garapenean jazotako gertaerarik aipagarrienak hauek dira:

- Unitate independente gisa funtzionatzea 1995etik
- Angiologia eta Kirurgia Baskularrean prestakuntza eskusiboa duten medikuak zerbitzuan sartzea
- Doppler, Pletismografia eta Klaudikometria unitatea erostea kanpo-kontsultarako.
- Tronbosi Benoso Sakonaren (TBS) tratamendu ambulatoriorako protokoloa implementatzea
- Diagnostiko Baskular ez Inbasiboko Unitatea sortzea doppler ekografiak egiteko hiru kontsolarekin
- Espezialitateko irakaskuntza-akreditazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- Zerbitzu bihurtzea eta Zerbitzuen Buruzagitza gehitzea 2009an
- Teknika endobaskularrak sartzea sektore arterial guztietan, eta larrialdi-zerbitzuetan.
- Oin Diabetikoaren Unitatea martxan jartzea.
- Malformazio Baskularren Batzordea lanean hastea.

Hauek dira langileak:

- Juan Luis Fonseca Legrand dk., zerbitziburua
- Eduardo Pérez García dk., staff, egoiliarren tutorea
- María Pilar Vela Orús dk., staff kontsultorea
- Yolanda Gallardo Hoyos dk., staff kontsultorea
- Maite Rodríguez Bustabad dk., staff kontsultorea.
- August Joshio Ysa Figueras dk., staff kontsultorea
- Amaia Arruabarrena Oyarbide dk., staff kontsultorea
- Roberto Gomez Vivanco dk., staff kontsultorea
- Marta Lobato Andrés dk., staff kontsultorea

Zerbitzuak **atal edo unitate asistentzial** hauek ditu:

- ◆ Ospitalizazioko 22 ohe
- ◆ Ospitaleko kanpo-kontsultak: astean 8
- ◆ Flebologiako kontsultak ospitale itunduan: astean 2
- ◆ Oin Diabetikoaren Unitatea: astean kontsulta 1
- ◆ Patologia arterialerako programatutako operazio-gelak: astean 6
- ◆ Astean 3 operazio-gela bena-kirurgian eta hemodialisiko sarrera baskularretan
- ◆ Laborategi baskularra, bi salarekin eta eguneroko esplorazio-programarekin
- ◆ Ikus-entzunezko saioetarako sala: saio klinikoa egunero eta saio bibliografiko bat astean behin

Urteko jarduera hemen dago eskuragarri:

[Ospitalea > Urteko Memoria Osorik “Arlo Klinikoak”](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Prestakuntza Espezializatuko Programa Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Non gaude

Angiologia eta Kirurgia Baskularreko zerbitzua
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:
Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903.
Barakaldo, Bizkaia
[Ospitalea Google Maps aplikazioan ikusi](#)

Zerbitzuaren idazkaritza:
Ospitalearen Eraikin Zentrala, 3.B
Administrazio-idazkaria:
Carmen Buela Ruiz.

Harremanetarako telefona: +34-94.600.6469
Posta elektronikoa:
mariadelcarmen.buelaruz@osakidetza.net





Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntza eta asistentzia-jarduera handiari esker, espezialitateko alderdi nagusi guztietan espezialisten prestakuntza eskaini eta bermatu dezakegu.

- a. Patologia arterialeko prozedura diagnostiko eta terapeutikoetako gaitasunak.
- b. Patologia benosoko prozeduretako gaitasuna.
- c. Espezialitateko larrialdietan artatzea.
- d. Laborategi baskularreko Diagnostiko ez Inbasiboko prozedurak
- e. Gaixotasun baskularren tratamendu kirurgiko ireki klasikoa
- f. Tratamendu endobaskularren aurretik Irudia prozesatzeko unitatea
- g. Tratamendu endobaskular programatua eta larrialdikoa aortaren aneurisman
- h. Tratamendu endobaskularra patologia arteria-buxatzailean
- i. Homomentu arterialen inplantea.
- j. Oin Diabetikoaren diziiplina anitzeko tratamendu protokolizatua.

Horiez gain, dedikazio berezia daukagu patologia zein prozedura konplexu hauetan:

1. Larrialdiko tratamendu endobaskularra aortaen aneurisma hautsitakoan
2. Tratamendu endobaskularra bularraldeko edo sabelaldeko aorta-aneurisma konplexuetan
3. Haurren traumatismo baskularren tratamendua
4. Malformazio baskularrak

Prestakuntzako egonaldiak eskaintzen dizkiegu beste zentro batzuetako profesionali.

Informazio gehiagorako, gure zerbitzu-zorroa hemen ikus daiteke:

[Ospitalea > Zerbitzuen Katalogoa > ANGIOLOGIA ETA KIRURGIA BASKULARRA.](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusi irakaskuntza jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarriko prestakuntza osatzeko. Ikastaro gehienak nahitaezkoak dira azken titulazioa lortzeko.

Ospitaleak [Saio orokorrak \(ikusi irakaskuntza jarduerak\)](#) burutzen ditu hilero asteazken batean edo bitan, 8:30ean areto nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako –



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Prestakuntza Espezializatuko Programa Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



bai eta beren arteko erlazioa zein den ere– eta bukatzeko, hainbat batzorderen jarduera garrantzitsuaren berri ematen dutelako.

Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

1. urtea:

- a. Larrialdi orokorrak: 2 hilabete
- b. Kirurgia orokorra: 6 hilabete
- c. Angiologia eta Kirurgia Baskularra: 3 hilabete

2. urtea:

- a. Erradiodiagnostikoa: 2 hilabete
- b. Angiologia eta Kirurgia Baskularra: 9 hilabete

3. urtea:

- a. Operazio ondoko Bizkortze Zerbitzua. 2 hilabete
- b. Toraxeko kirurgia: 2 hilabete
- c. Kirurgia Baskularra: 7 hilabete

4. urtea:

- a. Bihotzeko kirurgia: 2 hilabete
- b. Hautazkoak: 2 hilabete
- c. Angiologia eta Kirurgia Baskularra: 7 hilabete

5. urtea:

- a. Kanpoko hautazkoak: 2-4 hilabete
- b. Angiologia eta Kirurgia Baskularra: 9 hilabete

Zentro nazionaletan egin ditzake egoiliarak kanpo-prestakuntzakoaldiak.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Espezialitateko prestakuntza-ikastaro espezifikoak hauek dira:

- ✓ “Simuvasc Modulo Básico. Curso de aprendizaje y entrenamiento en técnicas básicas de cirugía vascular con simuladores” ikastaroa. Sociedad Española de Angiología y Cirugía Vascular (SEACV) sozietateak antolatua.
- ✓ “Simuvasc Modulo Avanzado. Curso de aprendizaje y entrenamiento en técnicas avanzadas de cirugía vascular con simuladores” ikastaroa. SEACVek antolatua
- ✓ “Manejo de programas de medición en imagen de TAC para cirujanos vasculares” ikastaroa. SEACVek antolatua
- ✓ SEACVen Oinarrizko Teknika Endobaskularren ikastaroa.
- ✓ Kirurgia Baskularrean Eguneratzeko Angiotest lineako ikastaroa, SEACVek antolatua.
- ✓ Kirurgia Baskularreko ikastaroa animalia-modeloekin, SEACVek babestua.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Ikerkuntza

[BioCruces Ikerkuntza Institutuaren](#) sostengua du Ospitaleak ikerketarako.

Hauek dira zerbitzuak zuzentzen dituen edo sarean lankidetzan diharduen ikerketa-lerroak:

- a. Sabelaldeko Aorta Aneurismaren tratamendua egokitzeko zentro anitzeko azterlana
- b. Anaconda endoprotesi-inplanteen zentro anitzeko erregistroa
- c. Oin Diabetikoaren unitate bat inplementatzearen emaitzen segimendua
- d. Prozeduren atzera eta aurrera begirako erregistro informatiko bat sortzea
- e. Beheko gorputzadarretako IV. graduko iskemia kronikoari asistentzia integrala emateko bide klinikoaren inplementatzea

Industria farmazeutikoarekin ere elkarlanean jarduten du saio klinikoak egiten.

Egoiliarra pixkanaka sartzen da ikerketa lanetan eta prestakuntzako bigarren urtea bukatzen duenean doktorego-tesia hasi ahal izango du.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio gehiagorako:

[Ospitalea > Ospitalearen urteko memoria](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “**Ebaluazio formatiboa**” deitutako ebaluazio-mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du adostasunez, eta bertan, egoiliarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera “**Egoiliarraren Urteko Txostena**” osatzen dute. Tutorea prestakuntza-prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Angiologia eta Kirurgia Baskularreko Zerbitzuko BAMEek (Barneko Medikueko Egoiliarrek) lortu beharreko gaitasunak XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-eremuetara egokitzen dira, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentzia eta irakaskuntza eta ikerketako gaitasunak [Angiologia eta Kirurgia Baskularreko espezialitatearen programa ofizialean](#) jasotzen dira.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio-sistema orokorra¹.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrri M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J eta González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Hemen eskuragarri: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio-sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den [“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”](#) proiektuaren parte da. [Ebaluazio-metodoak](#) hauek dira:

- a. Errotazio bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- b. Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlacionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- e. Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze-inkesta bat bidaltzen die.
2. Bi urtez behin, otsaila eta martxo bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)



Angiologia eta Kirurgia Baskularra ©